



Sorpresa ederra hartu zuten korrikalariak lekukoa hartu orduko lxiar eta Arritxuren txalapartaren doinuak entzutean.

## Merezitako ongi etorria eman zitzaion Korrikari

Txalapartaren doinuarekin eman zioten atzo ongi etorria Korrikako 16. edizioari Urmieta bideko auzokideek. Lasarte-Oriako ibilbideko lehenengo baserriko bizilaguna eta bere ahizpa prest zeuden etxe-aurrean Korrika iritsi orduko jotzen hasteko. Puntual iritsi zen Korrikaren lekukoa Urmietatik Lasarte-Oriara, eta ordu-rako, prest zeuden ere, bakoitza zegokion tokian, lekuko hori jaso behar zutenak. Aurtengo edizioa Gasteizen amaituko da igandean, eta bertan festarekin gozatzeko aukera izango da. Bestela, bi urte itxaron beharko dira berriro ere gura etortzeko. •

### Indarkeria sexistaren aurka

Lasarte-Oriako Bilgune feministak deituta lehengo asteko ostirala eta astelehena arratsaldean kontzentrazioak egin ziren Milagros Salazarren heriotza gaitzesteko. Bere senarrarengandik aldentuta egon arren, honek Milagros aurkitu eta jipoi eman zion. Bi egun beranduago, martxoaren 23an, Gasteizeko kale batean hil zen. *Beste emakume bat eraquila!!!* Indarkeria sexistari erantzun lelopeko pankartaren atzean hainbat gazte bildu ziren bi egunetan Udaletxe aurrean. •



### ERREPORTAJEA ■ 3-5

**Korrikaren 16. edizioak herritik pasatzerakoan utzitako irudiak bildu ditugu**

### KIROLA ■ 6

**Beñat Elizalde eta Julen Sasiain judokak Espainiako txapelketetarako sailkatu dira**

**JUAN IRAOLA  
E HIJOS S.L.**

ITURGINTZA



ITURGINTZA  
GASA

BEROKUNTZA  
AIRE GIROTUA



**Zorion-agurrak**



**Cayetano eta Unai**

Zorionak bikote! Muxu handi bat familia osoaren partetik. Ondo pasa!!



**Nerea**

Zorionak!! 4 muxu goxo gure etxeko sorgintxoari! Familiaren partetik



**Leire**

Zorionak Leire! Bederatzi muxu goxo denon partetik.



**Jon eta aita**

Zorionak bikote eta muxu handi-handi bat etxekoan partetik.



**Eli eta Leire**

Zorionak OLKIX! 20 urte,DIORRR amontzen ai geala! Juerja zuen kontu! Kuadrillakok.



**Nerea eta Etxebe**

Zorionak aitona eta amonaren partetik. Bederatzi muxu handi. Etxebe, gurasoen partetik egun ona pasa.



**Maialen**

Txokolatezko muxu potolo bat, familiaren partetik.



**Nora**

Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean, muxu asko eta ondo pasa, familiaren partetik.

**Guardiak**

**Ostirala, 3**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 4**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 5**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astelehena, 6**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Astearte, 7**

Gil, Kale Nagusia 14  
Tel.: 943 361529

**Asteazkena, 8**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Osteguna, 9**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Ostirala, 10**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Larunbata, 11**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Igandea, 12**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Astelehena, 13**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Astearte, 14**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 15**

Gil, Kale Nagusia 14  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 16**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago.la berria. Tel.: 652 774 679

• Ezcaray-en duplex bat alokatzen da. Igerilekua daukan urbanizazioan dago, oso paraje ederrean. 3 logela ditu. Tel.: 676 910 566.

**Salerosketak**

• Orbea markako bizikleta salgai; Gurpilak "kisyrium elite"; Biela "simano 105"; beste osagaiak "ultra-gra"; Horkilla eta eserlekuaren tija karbonozkoa. Neurria: 51. Prezioa: 700 euro. Tel.: 605 763 341 (Iñaki).

• Auto bat dut salgai. Suzuki Vitara 1900 markakoa. Diesela, 1999koa, 178.000 kilometro eginak. Deskapotablea, aluminiozko llantak eta defentsa. Okasiokoa. Tel.: 616 333 017 edo 666 116 333 telefono zenbakira.

• Bizikleta urdina salgai. Monty markakoa, 5-9 urteko haurrentzat. Bikain dago, ez du inongo akatsik. 60 euro bizikletaren truke, eta haurrentzako bi txirrindulari jantzi oparitan. Deitu 627 358 898 telefono zenbakira.

• Renault espace bat saltzen dut. 2004 urtekoa, 110.000 km, diesela, ondo zaindua, 7 pertsonentzako, beraztertuta eta bermarekin. 12000 euro. Harremanetarako mikelponga@hotmail.com

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com • www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

• Mobil home bat salgai. 11x4 metro, berria eta luxuzkoa. Lizarako kanping-ean partzela pribatua. 87.300 euro. Tel.: 658 089 380.

**Lan-eskaintzak**

• Pertsona bat behar dugu ume txiki bat zaintzeko Lasarte-Orian, astelehenetik ostegunera 17:30etik 19:30era. Tel.: 699 243 108

**Lan-eskariak**

• Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Telf: 693 60 12 22

• Pertsona adinduak eta gaixoak zainduko nituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527 (Carlos)

• Bigi garbituak eskaintzen da garbiketa lanak egiteko (alfonbrak, etxeak, bulegoak...) prest. Deitu konpromezurik gabe. Tel.: 638 944 604 eta 695 708 271.

• Geriatria laguntzailea esperientziaduna eskaintzen da pertsona adinduak eta haurrak zaintzeko. Etxeko gauzak egiteko prest. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte. Tel.: 620 646 769

• Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko edo atariak garbitzeko. Tel.: 680 581 914.

• Frantsesez klaseak ematen dira. Eskarmentua haur eta helduekin. Tel.: 680 581 914.

• Emakume bat eskaintzen da eguerditan garbiketa lanak egiteko (bulegoak, etxeak, tabernak). Tel.: 667 272 880.

**Bestelakoak**

• Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. Tel.: 690 784 113.

**Jaiotzak**  
Aitana Lazcano Castillejo, martxoaren 22an.  
Candy Nahomy Peña Pérez, martxoaren 16an.

**Heriotzak**  
Esperanza Berastegui Mendinueta, martxoaren 22an 83 urte zituela.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Landaberriko eta Sasoeta-Zumaburuko gaztetxoek herria dantzan eta korrika jarri zuten ostegun goizeko Korrika txikiari esker.

■ Lasarte-Oriako neska mutilak herriko kaleetan zehar ibili ziren ostegun goizean

■ Korrika iritsi baino ordu batzuk lehenago giro bikaina zen herriko kaleetan

# Giroa berotzeko, Korrika txikia, goizez

## TXINTXARRI

Atzo goizean urduritasuna nabari zen haurren artean. Gainera, Amalur eskolako trikitilari eta txistulariak herriko kaleak girotzen somatu genituen. Korrika txikia zetorren eta herri osoa dantzan jarri zuten.

Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko txikiek eman zioten hasiera Korrika txikiari.

Ibilbidean zehar hainbat lekuko aldaketa egon ziren, Sasoeta-Zumaburuko gaztetxoak edo Landaberriko txikiak ere ikusi ahal izan genituen Lasarte-Oriako

kaleetan zehar, bakoitzak bere erritimora.

Hainbat tarreetan, gainera, haur etorkinak izan ziren lekukoa eraman zutenak. Eta, era honetara, ikastetxeek aurtengo leloari *Ongi etorri* erreferentzia egin zioten.

Azkenik, Landaberriko gaztetxoek eman zioten bukaera Okendon Korrika txikiari.

Eta korrika egin ondoren, esnekiak izan zituzten indarrak batu eta Amalur triki eskolaren erromerian parte hartzeko. Ttakuneko begiraleekin eta jauskailuarekin jolasean ere ikusi genituen haur batzuk. •



Lekukoa eraman zutenen artean, hainbat haur etorkin ikusi genituen aurtengo omenduei aipu egiten.



Nahiz eta aldapa gora egin behar, ttipi-ttapa Landaberriko txikiek bere txanda ederki burutu zuten.



Zumaburu-Sasoetako txikiak prest Korrika txikiari hasiera emateko.



Korrika egin ostean, jolasteko gogoekin geratu ziren haur ugari eta jauskailuarekin izkutaketan jolastu ziren.



Jon Lasak eta Amaluruko trikitilariak dantzan eta kantuan jarri zituzten haurrak.

# Urnietako bidetik Zubietako bideraino jendetza giro onean Korrika

Lekukoaren atzetik herritarrek egin zuen euskararen alde lasterka. Arratsaldeko 14:35ean iritsi zen garaiz eta erritmo onean burutu ziren Lasarte-Oriako 8 kilometroak



Udaleko zinegotzak ere parte hartu zuten lekukoa emanimaz.



Elkeiz eta Otaó darrak bere kilometroa orngi banatuta zuten.



Elkei Abertzaleko lagunak arin-arin jaitsi zuten Kaxilarro ikastolako aldira.



Sorgin Jaik Bazardeko gazteak izan ziren Lasarte-Oriako lehenengo lekukoa eman zutenak, hauek laguntzen Urnietan eta Lasarte-Oriako hogei bat lagun egon ziren.



LAB sindikatuenko lagunek ere lekukoa eman zuten.



AEFko kideek haino eman zuten 16. Korrikako lekukoa.



Byak bat ellarrerako lagunek Zubietarantz eman zuten lekukoa.



Elbarte gastronomikoetik adin gazteak korrikarak izan zituzten.



Lanberritako Guraso elkarrearen lekukoa gazteokoen esku.



Tripontzi jangelako lagunak ekeki igo zuten Zubalicako aldira.



Prinbo, Porrotx eta Marimotosek ere dantza zuten Korrikan.



Ikastetxeetako lekukoa etorkinek eman zuten tarre bitan.



Sintos eta Eulogio, Zubaleta Auzobaneko banda egin zuten.



Takuneko begiraleek ere lekukoa eman zuten.

## TONTZARRI

Puntual itxsi zen 16. Korrika Lasarte-Oria eta Lasarte-Oria herrien artean. Korrika zuzen hitzordura. Urnietatik zatorren lekukoa Sorgin Jaik Bazardeko gazteen eskutian utzi eta herriko kaleetan barrera ibili zen ordu bete baino gutxiago.

Lehenengo kilometroan herritar guxi ikusten baziren ere pankarta atzean, Korrika herrian sartu orduko poan zen jendea batzen eta erdialdean kan zeudela, antolatzaileek pankarta handia atera behar izan zuten.

Udaleko zinegotziek, Erkeiz, Otaó, Ekzer Aber-tzailek, Aterpea, Takun, Tri-pontzi jangela, Zubaleta Auzolan, Landaberriko Cura-so elkarteak, ikastetxeak, Elkartetako gastronomikoak, Pirritx, Porrotx eta Marimo-

tois, LAB sindikatua, AEF, Byak Bat elkarteak, Argia eta Antzako ordezkariak izan ziren euren kilometroa egin eta lekukoa eman zutenak.

Adin gazteak korrikalariak egin ziren: gazteek, helduek eta haurrek ere eman zuten Kasu batzuetan egu-irrezko lekukoa.

Alpagarriak Eulogio de la Semaren sasoi, Zubaleta auzolaneke zaita egin ostean, elkarte gastronomikoekin ere beste txanpa bat egin zuten, eta ikastetxeetako lagunen eritimoa Zubaleteko aldiran gona. Hala ere, guztiok izan-go dugu indiren bat buruan.

Ziztu bizian pasa zen Korrika Lasarte-Oriatik, Argia eta Antzakoek Zubietako lagunei lekukoa ematean agur esan genion. Hala ere, Korrikanen jaiari amaiera ede-rra emateko, Olando plazan barrikotesa ipini zen. •

**Gazte kanpaldiak 2009**

Legea enpatzeko epea zabalit!

Hiru udaleku ezberdini INFORMAZIO ZAITEGI!

Trakun Kultur Elkarteak • Gultoki kalea 4 • 943 371493

**ERREKATXO JATEXEA**

- Eguneko menua
- Ostiraleko menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

JAUNARTE ETA BATAJOETAKO MENI BEREZIAK

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria

**YOLANDA TABERNA**

Berrito irekita!!

JANARIAK EMATEN DITUGU EGUNEKO MENUA, BOKATAK, SANDWICHAK, PLATER KOMBINATUA...

Pinbire 1 • 695 501890

**Jalajai** *cafe bar*

Kalitatea eta preziozko onena leku berean

Tel.: 943 379760

**EGUNEKO MENUA**

- RAZIOAK
- PLATER KOMBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOZARIAK

**KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria**

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

**Larunbata 4**

**10:30ean**, Ostadar-Beasain (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelin.  
**15:30ean**, Ostadar-Hondarribia (I. Jubenila, igoera fasea) Michelin.  
**17:15ean**, Ostadar-Hondarribia (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelin.

**10:00etan**, Bergara-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapeldunen fasea) Ipintza, Bergaran.  
**19:30ean**, Irun C.F.1902-Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) Ugalde-Ventas, Irunen.

**Igandea 5**

**10:30ean**, Ostadar-Sporting de Herrera (Infantil Txiki Kopa) Michelin.

**09:30ean**, Lengokoak-Ostadar (Alebinak, txapeldunen fasea) Cesar Benito, Donostian.

**11:30ean**, Hernani-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Zubipe, Hernanin.  
**19:00etan**, Amara Berri-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Martutenen.

■ FUTBOLA 8 ■

**Larunbata 4**

**12:00etan**, Lasarte BHI-Soraluze (Infantila eskolartekoa, txapeldunen fasea) Michelin.

■ FUTBOLA 7 ■

**Igandea 5**

**11:00etan**, Kyb-Niasa-Corpa (III. Maila) Igartza, Beasainen.

■ ARETO-FUTBOLA ■

**Larunbata 4**

**17:45ean**, ISU Ieihoak-Garetxe Lazkao (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

*Michelin edo frontoian*  
**10:00etan**, Buenetxea-I.O.B.H.K.  
**10:50ean**, Jordi-Morrison  
**11:40ean**, Epel-Lurra XXI  
**12:30ean**, Viña d. Mar-Okela  
**13:20ean**, Biyona F.-Ilargi  
**14:10ean**, Siglo XX-Obelix  
**15:00ean**, Danena-Izkiña

**Igandea 5**

**17:00etan**, Sasikoa C.D.B.-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Landako kiroldegia, Durangon.

HERRIKO TXAPELKETA

*Michelin edo moduloan*  
**10:00etan**, Oriá Krist.-Ainhoa  
**10:50ean**, ISU Ieihoak-Mayi  
**11:40ean**, Katanga-Tragoxka

■ SASKIBALOA ■

**Larunbata 4**

**16:30ean**, Novamark-Ainhoa (Gizonezko seniorrak) Ipurua kiroldegia, Eibarren.

■ SQUASH ■

*Kiroldegian, 18:00etatik aurrera*

**Ostirala 3**

Kinin Calvo-Iñaki Garcia Diego Barrasa-Aitor Reyes

**Asteartea 14**

Xabier Amiano- J. A. Ramos Agustin Erkizia-Alberto Udabe

**Asteazkena 15**

Julen Vega- J. R. Urruzola Txema Valles-Iker Cañedo

**Osteguna 16**

Aitor Artola- Kinin Calvo Iñaki Garcia-Diego Barrasa

■ PALA ■

**Igandea 5**

XV. PALA TXAPELKETA  
*Michelingo frontoian*

**09:00etan**, X.Etxezarreta eta Haritz Urdanpilleta-Bernaiz Odriozola eta Santi Martin

**09:45ean**, Imanol Bardaji eta A.Zubizarreta-Jon Begiristain eta Mikel Begiristain

**10:30etan**, Jon Begiristain eta Mikel Begiristain-Alain Etxebeste eta Iñaki Lizaso



■ BOLA-JOKOA ■

**Igandea 5**

**10:00etan**, Ostadarreko bolo sailak lehendakari txapelketan parte hartuko du, Ategorrietan.

■ JUDO ■

**Ostirala 3**

**Asteburu osoan**, LOKEko judokak Espainiako sambo txapelketa senior eta kadete mailan parte hartuko dute, Gijonen.

# Beñat Elizalde judoka Espainiako 23 urte azpiko lehiari domina bila

■ Apirilaren 18-19an jokatu da Madrilen. ■ Julen Sasiainek Unibertsitate mailako Espainiako finalerako txartela lortu du.

Emaiza desberdinak eskuratu dituzte LOKEko judokak lehengo asteburuko lehiaketetan. Beñat Elizalde eta Julen Sasiainek Espainiako txapelketarako sailkapenak lortu dituzten bitartean, Esteban Martinez eta Mario Garrido infantilek ez zuten zorte onik izan Borroka Olinpikoko Espainiako txapelketan.

Guztien artean emaitzarik garrantzitsuenak, Beñat Elizalde Zaragozan Espainiako txapelketako Iparraldeko kanporaketan lortutako bigarren postua izan zen.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "bere hiru borrokaldiak iponez irabazi eta gero, finala galdu egin zuen gauza berriak frogatzen ari zenean."

Beñaten lana azpimarratu eta lehenengo helburua bete dutela aipatu du Aristegi prestatzaileak. "Orain bigarren helburua lortzeko lan egin behar dugu, Madrilen domina eskuratzea," adierazi du LOKEko entrenatzaileak.

Beraz, apirilaren 18 eta 19an Madrilen, 23 urte azpiko Espainiako txapelketan lehiatu da Beñat Elizalde. Helburua gutxienez domina ekartzea da.

Era berean, Julen Sasiainek Unibertsitate mailako Euskadiko txapelketan parte hartu eta Alacanten maiatzaren



Beñate Elizalde azken urteotan egindako lana emaitzak ematen ari da.

17an burutuko den Espainiako finalerako sailkatu zen.

**Borroka Olinpikoa**

Bestalde, Esteban Martinez eta Mario Garrido herriko judokak Bartzelonan egon ziren borroka Olinpiko moda-

litateko Infantil mailako Espainiako txapelketan.

"Ez zuten zorte handirik eduki. Estebanek sukarrarekin parte hartu eta galdu zuen. Mariok nahiz eta oso ondo egin, brontzea gutxiatik galdu zuen," aipatu digu Aristegik. •



## TAU-Bartzelona ikusten Gasteizen

Lasarte-Oriako Eskola Kiroleko prestatzaile batzuek Gasteizen TAU-Baskonia eta Bartzelonaren arteko partidua ikustera joan ziren asteartean. Neska mutilek lehen mailako jokalariekin, saskibalo partida ikusgarriarekin eta Gasteizen izaten den giroarekin gozatu egin zuten eta gazteiztarren garapinarekin poztu. Herriko zaletu gehiago izan ziren Gasteizen baina hauen irudia ekarri dugu. •

Egunero

**Erakusketa**

KORRIKA 16 edizioak herrian utzitako irudiekin argazki erakusketa izango da apirilaren 3tik 15era bitartean Jalgin kafe-antzekian.



Ostirala, 3

**Kontzertua**

ARKAITZ MENDOZA pianojole andoaindarrak kontzertua eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

**Antzerkia**

KANDIDO URANGA antzezleak Txakurrek Haginka lana eskainiko du. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean, EUSKARAZ



Xpression zirkuituko emanaldiak

MAKULU KEN talde lasarteoriatarrek bere erritmo beroak eskainiko ditu kontzertuan. Batez ere influentzia beltzak dauzka talde honek, reggae, funk eta afrobeat doinuak landuz batik bat. Taldea Xabi (kitarra eta ahotsa), Unai (baxua eta koroak), Txus (bateria) eta Iñigok (perkusioa eta koroak) osatzen dute, Lasarte-Orriak laurak.

Ondoren GRASSMANN (Alain Espadas, Lasarte-Oria) diskojartzailea izango da goizeko 5ak arte. Beraz, Ostiral honetan dantza egiteko aukera paregabea izango dugu funk, afro, latin, soul... estiloekin.

GAUR OSTIRALA  
ABEND KAFE-ANTZOKIAN  
GAUEKO 12:00ETAN

Larunbata, 4

**Dantzaldia**

NAZIOARTEKO DANTZA EGUNA dela eta, Lasarte-Oriako dantza eskolak emanaldia eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

**Kontzertua**

DESPERVICIO ETA DETRITOS taldeek emanaldia eskainiko dute arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sustrai tabernan.

Igandea, 5

**Zinea**

EL REINO DE LOS CHIFLADOS filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean. GAZTELANIAZ.

Osteguna 16

**Zinea**

ESTOMAGO filma izango da ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean 21:30ean. GAZTELANIAZ.

**Erakusketa**

XI. JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK egitarauaren barruan Enrique Pimoulier argazkilariak *Beste aldetiko begiradak* izeneko erakusketa jarriko du Jalgi kafe-antzekian apirilaren 16tik hilabete amaiera arte.



Larunbata, 4

**Bertso-saioa**

MUNDUA KONPONTZEKO TAILERRA  
Ttakin kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako bertso eskolak antolatuta bertso-saio berezia izango da. Bertsoak eta antzezlanak uztartzen dituen emanaldia eskainiko dute Andoni Egañak, Xabi Paiak, Ane Labakak eta Andoni Ota mendik Aitziber Garmendia eta Egoitz Lasarekin. Hauekin batera herriko beste zenbait lagunek ere parte hartuko dute: herriko batukadak, antzerki eskolak, Pilar Catalinak, Jon Altunak, Tomas Arrutik... Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan. EUSKARAZ

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

**Begirale izateko**

Ttakin Kultur Elkarteak udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

**Galdutako txaketa**

Martxoak 20ean marrazki beltzdu txaketa gris bat baldin nuen Beko Errota edo Kale Nagusia inguruan. Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke.

Harremanetarako zenbakiak, 620 071 384 eta 943 370 438 (Maitte).

**Korrikako arropa salgai**

Korrika 16ko materiala salgai dago dagoeneko Muntteri-AEK euskaltegian eta Urruzola mertzerian.

**Marrazki eta pintura ikastaroak**

Lasarte-Oria Bizilagun elkar-teak jakin arazten du, apirilaren 10 eta 11ean ez dela pintura eta marrazki klaserik egongo Manuel Lekuona Kultur etxea itxia dago eta.

**Sorosle eta Lehen Sorospenen ikastaroa**

DYA Gipuzkoak antolatuta datorren apirilaren 27an Lehen Sorospen eta sorosle ikastaro berri bati hasiera emango zaio Usurbilen.

Hiru aste iraungo du ikas-

tarroak eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da asteleheneretik ostiralera Parrokiko lokaletan (Kale Nagusia 25). Ikastaroa gainditzeko duenak, EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera izango du. Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delaritu 90 eurokoa da.

Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefonora.

**Kolon minbiziaren proba**

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemate goiztiarrerako proba bat 50

eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzera animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Kolon minbizi ikerketa Lasarte-Orian

■ Proba eraginkor eta merkeena zein den aztertzen ari dira

**M**inbizi kasu asko ezagutzen dira egunero, gaur egungo aurrerapenekin askok bizi iraupena luzatzen dute edo kasu askotan, minbiziak kendu eta bizitza normala egiten dute. Baina heriotza ere suertatu daiteke eta minbiziaren artean arriskutsuenarikoa, kolon minbiziak dira.

Hau aurkitzeko bi proba daude, kolonoskopia eta odola gorozkietan zehazteko proba. Proba hauen eraginkortasuna eta balio alderatzeko, bi urtean zehar Lasarte-Oriako osasun zentroak eta Donostiako Poliklinikak ikerlana egin eta, era berean, gure herritarren osasunaz zainduko dute. Luis Bujanda doktoreak, ikerketaren koordinatzaileak honen berri eman zuen Manuel Lequona kultur etxean Osasun jardunaldien baitan urriaren egin zen hitzaldian, baina behin ikerketa martxan dagoela M<sup>3</sup> Luz Jauregi Osasun Zentroko zuzendariarekin hitz egin dugu datu gehiago jakiteko.

Minbizi hau ez da bat batean ateratzen. Polipoa ateratzen da lehenik eta hori minbiziaren bilaka daiteke 12 urteren buruan. Horregatik da hain arriskutsua minbizi hau.

Faktore desberdinek eragin dezakete polipoa eta minbiziaren sorreran. Adina da gehienetan garrantzitsua, kolon minbiziak duen pertsonen %90a 50 urte baino gehiago du eta noski, zenbat eta urte gehiago, gero eta minbizi izateko aukera gehiago. Bestalde, ingurugiroko faktoreak

ditugu. Gaur egungo bizitzak osasuntsuak diren hainbat ekintza alde batera uztea dakar eta honek gaixotasun ugari sor ditzake. Honela, dietan koipe gehiegi kontsumitzeak, obesitatea izate, kolesterola, hipertentsioa, bihotzeko arazoak, ariketa fisiko gutxi egitea edo fibra kontsumo txikia izatea dira kolon minbiziak sortu dezaketen faktoreak. Eta azkenik, faktore genetikoak daude.


## Probak

Hainbat Erakunde Internazionalak kolon minbiziko probak egiteko bultzatzen dituzte hiritarrak, nahiz eta sintomak ez izan.

Minbiziari aurre egiteko prebentzioa hiru multzotan bereizten da. Batetik lehen mailako prebentzioa dago, prebentzio modura kontrolak egiten dituen jendea sartzen da bertan; bigarren mailako prebentzioa sintomak izan edo aurrekariak dituztenak eta diagnosi goiztiar bezala kontrola egiten duen jendea dago eta, azkenik hirugarren mailako minbiziaren izan duena eta kontrolak egiten jarraitu behar duena.

Sintomarik gabe egin daitezkeen probak hiru dira odola gorozkietan zehazteko proba bi urtetan behin, sigmoidoskopia bost urtean behin eta kolonoskopia hamar urtean behin.

Sintomarik duenak, odola gorozkietan edo epe luzeko sabeleko mina, edo familian koloneko minbiziko aurrekariak dituenak kolonoskopia egin behar du.



Odola gorozkietan zehazteko proba edonork egin dezake etxean aurkibide erraz hauek pausuz pausuz jarraituz.

## Azterketa kliniko

Horretarako Estatu mailakoa azterketa kliniko egingo da zentro desberdinetan, Murztzian, Katalunian, Madrilan etab. egingo da. Guztira, 55.000 pertsona izango dira eta Euskal Herriari Lasarte-Orian egingo da. Gure herriak duen biztanle kopuru homogeneoatik izan da aukeratua. Gainera, esate baterako, Donostiako Ospitalean urtean 200 kasu badaude kolon minbizikoak, 13 kasu Lasarte-Oriakoak dira eta minbiziagatik 1000 pertsona hiltzen badira, 6 pertsona herrikoak dira.

Lasarte-Oria eta Donostiako Poliklinikaren lankidetzaz eramango da aurrera ikerketa. Honela, M<sup>3</sup> Luz Jauregi eta Luis Bujanda digestio-medikua dira koordinatzaileak eta hauetaz gain, erizaina eta idazkari bat egongo dira ambulatorioan lanean eta poliklinikaren endokopista eta anestesista bat, bertan egingo baitira kolonoskopiak.

M<sup>3</sup> Luz Jauregi doktoreak azaldu digunaren arabera, ikerketak bi urte iraungo ditu eta tarte horretan 50 urtetik 69ra arteko 4708 lasarteoriarrei

jakin araziko diote ikerketaren berri. Ikerketatik kanpo gertatzen dira minbiziak duten pertsonak, hesteetako arazoak dituztenak edo familian aurrekariak dituenak.

Egun 503 azalpen eskutitza bidali dituztela aurreratu digu Jauregi doktoreak, hauetan ikerketaren berri ematen zaie eta azalpen txiki bat. Horiematik, 183 herritarrei bigarren eskutitza bat bidali zaie, parte hartzeko gonbita egin eta zein proba egokitu zaion esanaz. Izan ere, guztiek ez baitute proba bera egingo, hauetatik 102k odola gorozkietan zehazteko proba dute eta 81ek kolonoskopia.

Aukeratutako herritarrek ambulategira deitu edo hurbildu behar dira 9:00etatik 13:00etara erizainarekin ordua zehazteko, honek odola gorozkietan zehazteko proba azaldu edo kolonoskopiarako analisisa eta elektroa egin eta prestakuntza azaltzen ditu. Izan ere, proba honetarako, hesteak garbitzeko dieta zehatza eta likido berezia hartu behar direla azaldu digu Lasarte-Oriako Osasun zentroko zuzendariak, baita

kolonoskopietan anestesia erabiliko dela eta egiterakoan polipoa aurkituz gero, bertan kenduko direla ere.

Odola gorozkietan zehazteko probari buruz, bakoitzak etxean egin dezaken proba azkarra da eta egin ostean, osasun zentroko sarreran espreski jarri duten kutxa batean utzi beharko da.

Probak negatiboak badira kolonoskopia egin dutenek 10 urteren buruan egin ahal dute hurrengoa eta odolaren probaren kasuan 2 urte besterik ez dira.

Proba positiboa bada, odola gorozkietan zehazteko proba kolonoskopia egin beharko dute eta kolonoskopioak espezialistara bidertuko dira.

Era honetara, globalean minbiziak aurkitzeko metodo hobierena eta merkeena aurkitu nahi dute. Horregatik lasarteoriarren laguntza behar dute eta eskutitzez gain, kartelak ezarriko dituzte Lasarte-Oriako farmazia, kirol gunea, kultur etxea eta Emakumeen Zentro Zibikoan herritarrek ikerketaren berri izan eta anima daitezten. •

Lasarte-Oriako Kultur Etxeko antzokian  
apirilaren 4an  
19:00etan

Sarrera: 3 euro, kultur etxean.

## Mundua konpontzeko tailerra

### LEKUONA TAILERRA

**Ane Labaka**

Antzerki Eskola, Patukada, Bertso Eskola, Zarautz, Poutxo, Tomas Arruti, Lara Torinos, Iraia Iparragirre, Jon Altuna, Karlos Aizpurua, Pilar Catalina,...

**Andoni Otamendi**

Andoni Egaña

Egoitz Lasa

Xabi Paya

Aitziber Garmendia